



2023/2024 denboraldia

## 30. ZIRKULARRA

### INFANTIL F8 NESKEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Infantil F-8ko nesken eskolarteko lehiaketa antolatzen du.

#### 1. PARTAIDETZA

Kirol klubek eta Ikastetxeek parte hartu dezakete.

#### 2. TALDEEN OSAKETA

	GRUPO 1 MULTZOA		GRUPO 2 MULTZOA		GRUPO 3 MULTZOA
1	ALLERRU K.E.	1	ANTIGUA LUBERRI K.E.	1	ANTIGUOKO K.E.
2	DUNBOA EGUZKI C.D.	2	AÑORGA K.K.E "B"	2	AÑORGA K.K.E
3	HONDARRIBIA F.E	3	ARRUPE CHAMINADE C.D.D.F.	3	ARRUPE CHAMINADE C.D.D.F. "B"
4	LANDETXA K.T.C.D.	4	SANTO TOMAS LIZEOA	4	HERNANI C.D. "B"
5	MARIÑO REAL UNION	5	INTXAURDI C.D. "B"	5	MARTUTENE K.E.
6	OIARTZUN K.E.	6	VASCONIA C.D.	6	SANTO TOMAS LIZEOA "B"
7	TOURING C.D.	7	MARTUTENE K.E. "B"	7	INTXAURDI C.D.
		8	KOSTKAS INTXAURDI C.D.	8	SPORTING DE HERRERA INTXAURDI C.D.

	GRUPO 4 MULTZOA		GRUPO 5 MULTZOA		GRUPO 6 MULTZOA
1	AIZTONDO NESKIDE K.KLUBA	1	ANAITASUNA C.D.	1	BERGARA K.E. "B"
2	EUSKALDUNA ANDOAINDARRA S.D.	2	LAGUN ONAK C.D.	2	MONDRAGON C.F.
3	URNIETA C.D.	3	GOIERRI GORRI F.K.	3	GOIERRI GORRI F.K. "D"
4	USURBIL FT	4	UROLA K.E. "B"	4	GOIERRI GORRI F.K. "E"
5	HERNANI C.D.	5	ZARAUZ K.E.	5	UROLA K.E.
6	GOIERRI GORRI F.K. "C"	6	ZUMAIKO F.T.	6	INTXURRE K.K.E.
7	GOIERRI GORRI F.K. "B"	7	ZESTOA K.B.	7	TOLOSA C.F.



GRUPO 7 MULTZOA	
1	ARIZMENDI UDA
2	BERGARA K.E.
3	EIBAR S.A.D.
4	ELGOIBAR C.D.
5	MONDRAGON C.F. "B"
6	MUTRIKU F.T.
7	MUTRIKU F.T. "B"

### 3. **SAILKAPEN ARAUAK:**

#### **LEHENENGO FASEA:**

51 taldek, 7 ekipotako 5 multzoetan eta 8 taldetako 2 multzotan banaturik, itzuli bakarrera (7 jardunaldi)

#### **BIGARREN FASEA:**

##### **A- Txapelduen Fasea:**

Fase honetarako multzo bakoitzeko lehen bi ( $2 \times 7 = 14$ ) eta hirugarren sei onenak (20 guztira) sailkatuko dira. Multzoek talde kopuru bera ez badute, lortutako puntuen eta jokatutako partiden artean ratio onena duten laugarren sailkatuak pasatuko dira. 20 talde hauek, 10 taldeko bi multzotan banatuta, itzuli bikoitzera jokatuko dute fase hau. (18 jardunaldi).

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek finalerdiak jokatuko dituzte (2023/05/12) eta irabazleek finala partida bakarrera eta zelai neutralean (2023/05/19).

Finaleko txapelkunak, Gipuzkoaren izenean Euskadiko Eskolarteko Txapelketan parte hartuko du, 2024ko ekainaren 2an.

##### **B- Gipuzkoa Kopa:**

Hirugarren postuan geratzen den azkeneko taldeak, multzo bakoitzeko laugarren eta bostgarren sailkatuak ( $2 \times 7 = 14$ ) eta seigarren postuko bost talde hoberenek, multzoek talde kopuru bera ez badute, lortutako puntuen eta jokatutako partiden artean ratio onena duten taldeak, Gipuzkoako kopa jokatuko dute. 2 multzotan banaturik, bakoitza 10 taldez osatuta eta bi itzulietara (18 jardunaldi).

##### **C- Udaberri Kopa**

Besteek, 11 taldek, multzo bakarrean eta bi itzulietara (22 jardunaldi), Udaberriko Kopa jokatuko dute. 22 jardunaldiak amaitzerakoan lehen sailkatuak irabaziko du.



#### 4. **ADINAK**

Txapelketa honetan infantil mailako jokalariek (2010 eta 2011) parte hartu dezakete.

#### 5. **LIZENTZIAK**

Gehieneko lizentzia kopurua 16koa. Hala ere, denboraldian zehar altak eta bajak konpentsatu daitezke.

#### 6. **JOKALARI KOPURUA ZELAI JOKAN**

- Gehienez: 8 jokalaria
- Gutxienez: 6 jokalaria

Gutxienezko kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalariai lortu ez dituen taldeari partida galdutzat emango zaio, naiz eta partida jolastu

#### 7. **PARTIDEN IRAUPENA ETA ALDAKETAK**

Partidek 60 minutuko iraupena izango dute, 20 minutuko 3 zatiekin, lehen eta bigarren zatian ezingo dira aldaketak egin, jokalariaen lesioa salbu. Azken zatian aldaketak libreak izango dira. 20 minutuko bigarren zatian, lehengo zatian parte hartu ez duten jokalariek parte hartu beharko dute.

#### 8. **BALOIA**

Baloia 4 zenbakikoa izango da eta ez da onartuko areto futboleko baloia.

#### 9. **ZELAIAREN ETA ATEEN NEURRIAK**

Zabalean jokatuko da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den gutxi gorabehera ondoko neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera duen angeluzuzena izango da. Ateak 6(langeta) x 2(zutoina) izango dira. Neurri hauek kontutan izanda, jokalekua, salbuespen bezala, zelaiaren luzera aprobeztatuz marraztu daiteke.



### 10. PENALTI EREMUA

Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko poste bakoitzetik 9 metro tara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko linearekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroa egiten duten eremua, penalti eremua izango da.

### 11. PENALTI PUNTUA


9 metro tara eta erdian markatuko da penalti puntua

### 12. ATE EREMUA

Penalti eremua bezela, bakarrik ateko poste bakoitzetik 3 metro tara

### 13. JOKOZ KANPOKO EREMEUA

Ateko marratik 13 metro tara ezarriko da.



### 14. BESTE ARAUAK

Beste arauak, futbol hamaikako lehiaketan dauden berdinak izango dira.



## **15. ASEGURUAK**

**Eskolarteko lehiaketa bat denez**, Gipuzkoako Futbol Federazioari **ez dagokio** laguntza medikuaren estaldura, beraz lesioren bat gertatuz gero **Gizarte Segurantzza Publikora** edo jokalariaren ama edo aitak duen aseguru pribatura joan beharko duzue.

## **16. ARBITRAJEAK**

Talde bakoitzak epailearen eginkizuna beteko duen pertsona bat (edo gehiago) eduki beharko du. Etxean jokatzen duen taldea izendapenez eta ordainketaz arduratuko da.

## **17. LIZENTZIAK**

Behin betiko lizentziak bideratzen diren bitartean, Eskualde-Ordezkaritzak sinatu behar dituen jokalarien zerrendak beharrezkoak izango dira lehiaketan parte hartzeko.

## **18. PARTIDEN EMAITZAK**

Partida bakoitzaren ondoren, aktak Gipuzkoako Futbol Federaziora bidali beharko dira, asteleheneko 10:00ak baino lehen emaitza izateko eta, behar izanez gero, gertatutako gorabeherak Lehiaketa Batzordeari helarazi ahal izateko.

## **19. DIZIPLINA ARAUDIA**

Eskola kirolari buruzko 2013ko uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuarekin bat etorriaz, Instituzio Foralak eginkizunak eskuordetzean ematearen ondorioz diziiplina ahalmena honela gauzatzen da:

- a) Lehen auzialdian, lehiaketen garapen teknikoaz arduratzen den kirol federazioko diziiplina batzordeak.
- b) Bigarren eta azken auzialdian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak. Honen ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari eta, araua jurisdikzionaleri jarraiki, horien aurkako errekurtsoa aurkez daiteke.



## **20. BABES OROKORRA**

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2023ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

**Donostia, 2023ko irailaren 28a**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General